

ERRENTAREN GAINEKO ZERGA KALKULATU

Nafarroan bizi naiz
eta Akitania-Berrian
lan egiten dut

Errentaren gaineko zerga kalkulatu

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga (PFEZ) aurretiaz ordaintzen da, eta ordaindutako zenbatekoa aitorpenaren emaitzatik kenduko da. Errenta aitorpena urtean behin egiten da.

Lehenik eta behin zerga eragiten duten pertsona baten irabaziak kontuan hartu behar dira. Nagusiki hauek dira kontuan hartzen:

- Lanaren etekinak.
- Jarduera ekonomikoen etekinak.
- Kapitalaren etekinak.
- Gainbalioak eta minusbalioak.
- Foru Erkidegoak finkatutako errentaren gaineko zergak

Hortik aurrera hasiko da PFEZ-aren oinarriaren kalkulua. Bi oinarri dauzka:

ERRENTAREN GAINEKO ZERGA KALKULATU

- **Oinarri orokorra:** horri aplikatuko zaizkio konpentsazio-prestazioen eta elikadura pentsioen, aurreikuspen sistemetan ezarritakoa eta zerga amankomun bati loturiko kenkariak.

Hemen, Frantzian ez bezala, bikote batek zerga aitorten bateratua egin dezake, ala bakoitzak berea. Frantzia berez horrelako aukerarik ez dago. Dagoen aukera bakarra bikotearentzako aitorten bakarra aurkeztea da.

- **Aurrezki-oinarria.** Honek kapitalaren etekinak, gainbalioak eta minusbalioak biltzen ditu.

Ondotik, zergaren zenbatekoa kalkulatzeko errentaren taulak eta aurrezkiaren taulako kopuruak gehitu beharko dira.

Nafarroan bizi naiz
eta Akitania-Berrian
lan egiten dut

ERRENTAREN GAINEKO ZERGA KALKULATU

Nafarroan bizi naiz
eta Akitania-Berrian
lan egiten dut

Oinarri orokorraren tasak honakoak dira.

Nafarroako zergak: Oinarri orokorreko tasak

oinarri orokorra (Euro)	Zergaren zenbatekoa (Euro)	Zenbateraino (Euro)	Tasa aplikagarria (%)
0	0	4.000	13,00
4.000	520	5.000	22,00
9.000,00	1.620	10.000	25,00
19.000,00	4.120	13.000,00	28,00
32.000,00	7.760	14.000,00	36,50
46.000	12.870	14.000,00	41,50
60.000	18.680	20.000	44,00
80.000	27.480	45.000	47,00
125.000	48.630	50.000	49,00
175.000	73.130	125.000	50,50
300.000	136.255	Au-delà	52,00

Iturria: Hacienda Foral de Navarra

ERRENTAREN GAINEKO ZERGA KALKULATU

Nafarroan bizi naiz
eta Akitania-Berrian
lan egiten dut

Aurrezki-oinarriaren tasak honakoak dira.

Nafarroako zergak: aurrezki-oinarriaren tasak

Aurrezki-oinarria (Euro)	Zergaren zenbatekoa (Euro)	Zenbateraino (Euro)	Tasa aplikagarria (%)
0	0	6.000	19,00
6.000	1.140	4.000	21,00
10.000	1.980	5.000	23,00
15.000	3.130	Au-delà	25

I

turria: Hacienda Foral de Navarra

Emaitza horretatik kendu beharko dira plan orokorrak finkatzen dituen kenkariak*.

Hortik aurrera, aurretiaz ordaindu diren kopuruak lortutako emaitzari kendu eta ordaindu beharrekoa lortzen da.

*https://www.navarra.es/home_es/Gobierno+de+Navarra/Organigrama/Los+departamentos/Economia+y+Hacienda/Organigrama/Estructura+Organica/Hacienda/Informacion+Fiscal/Preguntas+mas+frecuentes/IRPF/Cuota+integral+y+deducciones/

2018ko abuztua